



Izaera bat, eskola bat

Adar batean Luzaro
amatxo gustora dago...
baina zuhaitz izateko
iada prestaturik nago!!!
izan nahi nuke neurea
pausatuz geure bidea
nik uste badaukadala
hortako eskubidea!!!

Nahi det... gure hezkuntza bat izan nahi det!
Nahi det... bertan ikasten jarraitu nahi det!
Nahi det... geure izaera izan nahi det!
Nahi det... itziarko eskola bat nahi det!

Txikitatik hamabira,
urterainokoen jira,
izan nahi det denak goxo
kulunkatzeko kabida!!!
Hitza, musika, jolastuz...
eredu irmo bat nahastuz
aske bizitzen ikasi
gure erabakiak hartuz!!!

Nahi det... gure hezkuntza bat izan nahi det!
Nahi det... bertan ikasten jarraitu nahi det!
Nahi det... geure izaera izan nahi det!
Nahi det... itziarko eskola bat nahi det!

Ametsak batzutan egi...
izatea ez da zilegi
zirrikitu bat bada ta
horri nahi diogu segi!!!
Eskertuko da laguntza,
sustraieri gora bultza
gure eskolak har dezan
tokatzen zaion gorputza!!!

Nahi det... gure hezkuntza bat izan nahi det!
Nahi det... bertan ikasten jarraitu nahi det!
Nahi det... geure izaera izan nahi det!
Nahi det... itziarko eskola bat nahi det!
Nahi det... gure hezkuntza bat izan nahi det!
Nahi det... itziarko eskola bat nahi det!